

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
22/2010	P2/2011	2011/03/28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	2004ko BEZa itzultzeko eskumena

P 2/2011 ebazpena
22/2010 espedientea

Gasteizen, 2011ko martxoaren 28an

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak, Carlos Palao Taboada jauna batzordeburu dela eta Isaac Merino Jara eta Francisco Javier Muguruza Arrese jaunak batzordekide direla, honako erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

2010eko ekainaren 3an IZEN-ABIZENAK ERAKUNDEAREN izenean aurkeztutako idazkiaren inguruan, Arbitraje Batzorde honen erregistroan 2010eko ekainaren 14an sartu zena.

I. AURREKARIAK

Aipatutako idazkian ondoren laburbiltzen diren gertaerak ageri dira:

1. ERAKUNDEAK (aurrerantzean "erakundea") "2004ko ekitaldian bi aldiz ordaindutako" BEZaren kuotak itzultzeko eskatu zien Zerga Administrazioko Estatuko Agentziari (ZAEA) eta Bizkaiko Foru Ogasunari. Eskaria gaitzetsi egin zen.
2. Erakundeak erreklamazioa aurkeztu zuen Bizkaiko Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboan, 2004ko ekitaldiko BEZaren autolikidazioa zuzentzea gaitzetsi izanaren aurka. Bizkaiko Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboak erreklamazioa gaitzetsi zuen 2008ko urtarrilaren 22ko akordioaren bitartez.
3. Erakundeak aurreko akordioaren aurkako helegitea aurkeztu zuen EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan. Azken horrek idazkiarekin

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
22/2010	P2/2011	2011/03/28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	2004ko BEZa itzultzeko eskumena

batera doan 61/10 zenbakidun epaia eman zuen 2010eko otsailaren 8an. Epaia horren bidez helegitea gaitzetsi zen, gertakarietan estatuko administrazioaren eta Bizkaiko Foru Administrazioaren artean gatazka dagoela ikusten delako. Auzitegiak ez du ebazpena emateko eskumenik, Arbitraje Batzordea baita horretarako eskumena duena.

4. EAEko Auzitegi Nagusiaren epaia ikusita, erakundeak ondorengoa adierazi zuen: "Arbitraje Batzordearen funtzionamendua erregulatzen duen araudia aztertuta, parte honek ondorengoa ulertu du: administrazioen arteko gatazkak konpontzera bideratutako prozedura ezin da pertsona juridiko edo fisiko batek eskatu duelako abiarazi, kasu honetan gertatu den bezala". Ondorengoa gehitu zuen: "arestian aipatutakoa gorabehera, parte honek Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren epaian xedatutakoa bete du eta gertatzen ari denaren berri eman du. ERAKUNDEA babesik gabe dago, puntu honetaraino iritsita ezin duelako estatuko eta Bizkaiko ogasunek ezarritako zergapetze bikoitzaren zenbatekoa itzultzeko prozedura abiarazteko eskatu".

5. Jarraian, erakundeak ondorengoa adierazi zuen: "hainbat idazki aurkeztu ditugu nahasitako administrazioen organismoetan, Zerga Administrazioko Estatuko Agentzian eta Bizkaiko Foru Ogasunean alegia, Arbitraje Batzordearen aurrean dagokion prozedura bultzatzeko eskatuz. Hala ere, ondorengoa gehitu du: "parte honen ustez, bi organismoetako batek ere ez du eskatutakoa onartuko. Kaltetutako enpresak are babes gutxiago izango du eta horregatik azaldutako kasuaren egoera larriaren berri eman behar izango dio Arbitraje Batzordeari".

6. Idazkia Arbitraje Batzordeari ondorengoa eskatuz bukatzen du: "Zerga Administrazioko Estatuko Agentziaren eta Bizkaiko Foru Ogasunaren artean sortutako interesen gatazkaren ondorioz, ERAKUNDEA ageriko babesgabetasun egoeran dagoela jakin dezan. Izan ere, ez da zehaztu bi organismoetako zeinek itzuli

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
22/2010	P2/2011	2011/03/28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	2004ko BEZa itzultzeko eskumena

behar dituen ERAKUNDEAK 2004ko ekitaldian bi aldiz ordaindutako BEZaren kuotak”.

III. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Bakarra. 2010eko ekainaren 3an erakundearen izenean aurkeztutako idazkian ez da ageri Arbitraje Batzorde honi egindako eskaerarik, adierazpenen bat egin dezan.

Kontzertu Ekonomikoaren Arbitraje Batzordearen Araudian xedatutakoaren arabera, idazkia zuzen dago administrazioen arteko gatazkak konpontzeko eskumena duena organo hau dela esatean. Dena den, ez du kontuan hartzen araudia horrek Arbitraje Batzordearen aurrean gatazka negatiboak konpontzeko bidea ematen duela, duten eskumenari uko egiten dioten administrazioek hala egiten ez dutenean. Izan ere, EIABAREN 13.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, bigarren administrazioak aginpiderik ez duela adierazten duenetik hasi eta hilabeteko epean “bi administrazioetatik bat ere ez bazaio Arbitraje Batzordeari gatazkaren inguruan zuzentzen, nahikoa izango da hurrengo hilabetean behartutako zergadunak egoera hau Batzordeari jakinaraztea, automatikoki gatazka azaldutzat emateko”.

Aurkeztutako idazkiak ez ditu EIABAK gatazka automatikoki azalduta gera dadin formarako eta funtserako eskatutako baldintzak biltzen. Ondorioz, planteamendu hau gaitzesten da.

Horrenbestez, Arbitraje Batzordeak hauxe

ERABAKI DU:

2010eko ekainaren 3an ERAKUNDEAREN izenean aurkeztutako idazkiak gatazkaren planteamendu automatikorako beharrezkoak diren baldintzak betetzen ez dituela eta Arbitraje Batzorde honek beste adierazpenik egin ezin duela adierazten da.